Lurralde : invest. espac.	37	2014	p: 125-143	ISSN 0211-5891	ISSN 1697-3070 (e)

BASERRIA ETA PAISAIA :

USTIATEGIAK EGOKITZEKO BEHARRA

ALBERDI COLLANTES, J.C.

Departamento de Geografía de la Universidad del País Vasco
Facultad de Filología y Geografía e Historia.
Francisco Tomás y Valiente, s/n. Apartado 2111. 01006 Vitoria.

E- mail: juancruz.alberdi@ehu.es

Laburpena: Artikulo honetan nekazal ustiategiari lotutako eraikuntzen paisai integrazioa aztertzen dugu. Hasiera batean irizpide orokorrak jasotzen dira, Europar komisioak lagundutako zenbait proiektuen gomendioak jarraituz. Bigarren une batean Euskal ustiategiei irizpide hauek aplikatzeko proposamena lantzen da, bertan burututako Tolosaldeko proiektuen aholkuak jarraituz. Ustiategi barruan baserriaren eraikuntzaren garrantzia eta abstrakzioaren aldeko apustua dira Euskal nekazal gunerako egiten diren aipamen berezienak

Hitz gakoak: Euskal Herria, baserria, paisai, nekazal ustiategia.

PAISAJE Y CASERIO: NECESIDAD DE ADECUAR LAS CONSTRUCCIONES AGRARIAS

Resumen: En este artículo analizamos la integración paisajística de las construcciones ligadas a explotaciones agrarias. En primer lugar se recogen planteamientos generales, a través de las recomendaciones que diferentes estudios impulsados desde las instituciones Europeas realizan en torno a este tema. En un segundo momento, a través de proyectos que se centran en el País Vasco, se aplican estas recomendaciones a las explotaciones agrarias ligadas al caserío. De estas recomendaciones, como particularidad, destaca la importancia que desde el punto de vista de integración paisajística se le aporta al caserío como construcción y la apuesta por la abstracción a la hora de realizar construcciones agrarias.

Palabras clave: País Vasco, caserío, paisaje, explotación agraria

JUAN CRUZ ALBERDI COLLANTES

LANDSCAPE AND BASQUE FARM HOUSE: AGRICULTURAL BUILDINGS ADAPTING

ABSTRACT: This paper analyzes the landscape integration of farm buildings. First, it picks up general recommendations through different studies promoted by European institutions made on this topic. In a second stage, through projects that focus on the Basque Country, these recommendations are applied to the Basque farm buildings. Among the particularities of these recommendations the paper stresses the importance of the mayor building in the landscape integration of the farm and the bet for abstraction when the buildings are for agricultural uses.

Key words: Basque Country, Basque farm house, landscape, farm activity

Nekazal paisaiak Europar gizartearen irudi mentalaren partea dira. Paisaia hauen eragina ekoizpen, estetika, nortasun eta inguru giroarengan islatzen dira eta beraien kudeaketa garrantzitsua da gizarte guztiarentzat. Barietate eta aberastasun handia azaldu arren, nekazaritza eta basogintzaren arteko mosaikoaren osaketan laburtzen da. Nekazal ekoizpenak abeltzaintzara zuzentzen diren lur sailekin nahasten dira eta urruti eta emankortasun gutxiagoko lurretan basoak nagusitzen dira. Nahasketa hauek, bertakotasuna eta erregionaltasunaren bidez izugarrizko aberastasunari bidea ematen diote.

Deskribatu dugun paisaiaren ohiko eredua aldaketa azkarrak eta sakonak jasaten ari da egun. Kasu askotan, arrazoiak nekazaritzaren jardueraren bilakaerari lotuta izaten dira. Ustiategi gehienek jarduera utzi egin dute, aldiz, bakar batzuk intensifikatu duten euren jarduera bitartean. Beste kasuetan, kanpoko faktoreak dira nekazal paisaia eragiten dutenak, hiri izaera dutenak (urbanizazioak, azpiegiturak, ekipamenduak …). Guzti horren ondorioz, nekazal eta hiri gunearen arteko irudi kontrajarria desagertzen ari da. Gizarteak ez ditu paisai berri hauek berezkoak sentitzen.

Banalizazio eszenatoki berri honetan eraikinen etengabeko zabalpena da ezaugarri aipagarriena. Askotan, eraikuntza berriak dira, nekazal ekoizpenarekin zerikusirik ez dutenak baina, beste kasuetan, ustiategiari lotutakoak dira, funtzioen banaketaren ondorioz (etxebizitza eta ekoizpenaren artean) eta jardueraren eskakizun berrien ondorioz.

Nekazal eraikuntza berriak ordenatu egin behar dira egungo eskaera funtzionalei modu egokian erantzuteko. Nekazaritza, landa guneetako jarduera adierazgarriena da eta, beraz, mantendu eta bere garapena ziurtatu egin behar da. Baina hau dena jatorrizko paisaiak eta eraikuntza tipologiak berikusi egin behar da, egoera berrietara egokituz. Nekazal ohiko paisaiak egoera berrietara egokituz armonia berria lortzea da helburu, kalitatezko baloreak mantenduz.

Lan honetan ustiategien paisaiaren integrazio egokia lortzeko irizpide batzuk jasotzen ditugu. Irizpide hauek eztabaidagarriak eta, kasuz kasu, landu beharrekoak dira. Lehenik, irizpide orokorrak jasotzen ditugu, egin diren ikerketa ezberdinek gomendatzen dituztenak. Ondoren, Euskal baserriaren eredura aplikatzeko proposamena egingo dugu, era honetako ikerketek egin dituzten lan ezberdinak jarraituz, Paisaia AKI eta Landa Garapen Elkarteen eskutik[1].

1 Lan honen bitartez Donostialdea eta Tolosaldeko Landa Garapen Elkarteak lurralde antolamendu eta paisaiari buruz egindako lana eta Askasibar eta Puldai ikertzaileen aportazioak eskertu nahi dugu, Euskal paisaiaren ikerketaren inguruan aintzindariak izan eta direlako. Errezensio hau landagunearen nahia jarraituz egin da

1.- Nekazal eraikuntzen balorapenaren irizpide orokorrak.

Paisaiaren zientziaren garapena gero eta nabariagoa da eta, horren ondorioz, asko dira landa eremuko eraikuntzen paisaiaren integrazioa aztertu dituzten ikerketak. Xumetasunaren helburua jarraituz, azterketa hauetatik irizpide orokorrak planteatuko ditugu, gerora Euskal adibidean aplikagarriak izango direnak.

1.1.- Kokapenaren hautaketa.

Kokapenaren aukeraketa egokia da nekazal eraikuntzaren paisai integrazio egokia ziurtatuko duen elementua. Proiektu berri batek paisaiaren integrazioa eta eragin negatiboen neurri zuzentzaileak proposatu beharko lituzke. Gunearen ezaugarriak eta paisaiaren unitateen ezagupenak proiektuaren paisai integrazio egokia lortzeko elementu lagungarriak dira. Topografiak, bisibilitateak edo lekuaren kokapen ezaugarriak eraikuntza eta paisaren arteko harreman orekatuta lortzen lagundu dezakete. Horretarako honako elementuak aztertu beharko lirateke:

- Gunearen paisaiaren elementu egituralak aztertu. Gunearen ezaugarri fisikoak (erliebea, landaretza, partzelario…), identitatioriak eta perzeptiboak bere osotasunean ikusi behar dira paisaiaren ezaugarri menperatzaileak ondo definitzeko.

- Eraikuntzaren azterketa planteatzerakoan, gunearen eskala egokia aukeratu, ikus arroa eta hauskortasuna kontuan hartuz. Azterketan, eskala ezberdinak konbinatuz ikus arrotik eta hauskortasunetik, enplazamendu zehatzetara pasa beharko litzateke.

- Eraikuntza berriak egin baino zaharberritzerakoan aukerak aztertu.

- Ahal den neurrian, nekazal eraikuntzak gune urbanoen perimetroan eraiki behar dira, horrek inguruko eskala arkitektonikoarekin bat egingo duelako. Hau ezin denean lortu, eraikuntzak ustiategiko hurbiltasunean egin behar dira inguruko gunea liberatzeko. Eta ezin bada, hauskortasunaren irizpiedeak eta topografi eta landaretza irizpideak jarraituz, eraikuntza integratu beharko litzateke.

- Lekuaren topografía errespetatu, horretarako lagungarria izan daiteke gune horretan tradizionalki erabili ohi diren estrategiak. Nekazal eraikuntza berriek topografiarekin bat egin behar dute eta horretarako malda haundiak, exkabazioak, eskoilerak, harresiak eta abar ekidin behar dira (Ikus grafiko1).

- Kokapenaren ikusgarritasuna kontuan hartu behar da. Paisaren hauskortasuna aztertu behar da, populazio gune nagusiak, ibilbideak, ikusgarri guneak non dauden eta zer erabilera duten jasoz. Horrekin batera, gune singularretatik (lakuak, labarrak, ibaiak…) edo paisajistikoki edertasuneko gunetatik (gune geologikoak, aldatu gabeko nekazal guneak…) ikusgarritasuna ekidin.



Grafiko 1.- Kokapenean txertaketa egokiak eta desegokiak.

Dena dela, aipatu eskakizunek ustiategiaren bilakera kontuan hartuz garatu behar dira. Ustitegia zabaltzeko benetako beharra aztertu behar da, bere jarraipena ziurtatuz, bera delako paisaiaren partehartzaile nagusiena.

1.2.-Diseinua eta eraikuntza

Behin kokapena aukeratuta, eraikuntza da aztertu beharreko elementua. Nekazal eraikuntzaren paisaia integrazio egokia gauzatzeko, parte hartzen dituzten faktore adiezgarrienak ustiategi osoaren integrazioa (kokapen kaotikoak ekiditeko), eraikuntzaren bolumena, eraikuntzaren eredua eta ematen zaion erabilera kromatikoa dira, hau da, eraikuntzaren integrazioa material, textura eta kolore ezberdinak erabiliz. Horretarako, jarraian aipatzen diren ezaugarriak kontuan hartzeko gomendatzen da.

Lehenik, inguruko eraikuntza tipologiak eta gunearekin duten erlazioa ezagutzea gomendatzen da, nortasun ezaugarriak ezagutzen laguntzeaz gain, kokapena, banaketa eta eraikuntzako arau egokiak bertako material eta tipologiekin erlazionatuak, ezagutzera ematen duelako baizik.

Bigarren, ustiategien eraikuntzak gune zehatz batean kokatu eta bata bestearengatik hurbil egon beharko lirateke, lurraren kontsumoa gutxitu eta irudimen bateratua irabazteko asmoz. Hala ere kasu hauetan aipatu eraikuntzak ikusmen ardatza nagusienetatik urrundu beharko lirateke (tontorrak, herri inguruak…), ikusmen panoramikoak ez oztopatzeko eta pantailak ez sortzeko. Elementu linealak ez dira egokiak izaten ustiategien eraikuntzak antolatzerakoan. Komenigarria da paisaiaren berezko lerroak erabiltzea (topografia, baso mugak, partzelazioa, bideak… konposaketaren ardatz natural modura. Eraikuntzak forma hauetara egokitu behar dira.

Zaindu beharreko beste ezaugarria barruko konposaketa da. Kasuan kasu aztertu beharko litzateke baina eraikuntza bakoitzaren luzera, zabalera eta altuera, zenbakia, atariak, teilatuen inklinazioak eta abar zaindu beharreko ezaugarriak dira. Eraikuntzen arteko neurri erlazioa zaindu behar da eta, ekoizpenerako direnez gero, sinpletasuna eta funtzionalitatea nagusitu egin behar da. Eraikuntza tradizionala mantentzen denean bere garrantzia garbi gelditu behar du. Eraikuntza berriek osotasunaren oreka bermatu behar dute, jatorrizko eraikuntzaren eragin gunea errespetatuz eta, ahal den neurrian, goraipatuz. Jatorrizko konposaketa ahalik eta gutxien eraldatu behar da. Anexo berriak egin behar direnean, konposaketa sinpleen alde egin beharko litzateke, gutxien ikusten diren lekuetan kokatuz, eraikuntza batean elkartuz....

Egituraren eta estalpeen diseinua, materiala eta koloreak kontuan hartu beharreko beste elementuak dira. Orokorrean, eraikuntza estuetan isuri bateko teilatuaren alde egin beharko litzateke, baita malda haundiko guneetan, gune lauetan berriz bi aldeetara. Eraikuntzarako aukeratzen diren materialen artean, jatorriz naturalak direnei lehentasuna eman (harria, egurra, adobea...), prefabrikatuak direnean bukaera egokiak eduki ditzaten eta, batez ere, paisaia desbalorizatzen direnak ekidin, bai bere kolore, disdira edo izaerarengatik (plastikoa, fibroporlana, altzairu disdiratsua...). Alzadoetan eta teilatuetan irikitzen diren argiguneak konposatuak egon behar dute. Orokorrean argigune hauek longitudinalak izan behar dute, teilatuaren erdiko ardatza jarraituz.

1.3.- Gune funtzionalak eta elementu lagungarriak

Ustiategiek bere funtzionamendurako elementu lagungarriak behar izaten dituzte (biltegi, fosa, siloa …). Horretaz gain, etengabe erabiltzen ari diren elementuak (sarrera, karga eta deskarga gunea, aparkamendua …) beharrezkoak dira ustiategi batean. Guzti hau antolatu behar da eta gunearekiko behar duen errespetuaz egin behar da.

Gunearen zainketaren inguruan ustiategiaren sarrerak zaindu beharreko elementuak izaten dira. Zabalpenak ahalik eta gutxien eta txikien, eta topografiari egokituak egitea aholkatzen da. Zoladura iragazgaitza ekiditeko gomendatzen da eta hau burutu ezean, kromatismoa zaintzea beharrezkoa izaten da. Beste horrenbeste garraiorako ezinbestekoak diren ustiategi barruko guneak. Kasu hauetan, funtzionalitateak du lehentasuna baina aldez

aurretik planifikatu behar da gunea, ikusgarritasun eta konposaketa irizpideak kontuan hartuz.

Ustiategiek irudimen baikorra sortu eta zaindu behar dute. Horretarako harrera guneak proiektatu, landarez hornitutak eta inguruan ondo integratutak egon behar dira. Aparkamenduak gune honetatik hurbil egon behar dute. Kasu hauetan zoladuraren inpaktua gutxitzeko landarediaren horniketa lagungarria izaten da.

Ustiategian aire libreko biltegi eta zabortegiak nahi baino ugariagoak izaten dira. Hauek irudimen eskasa eta inpaktu izugarria sortarazten dute. Hauen sorrera aldez aurretik planifikatu behar da era honetako erabilerak ikusmen gutxiko zonaldeetan kokatu, lurrarekin partzialki estali edo landarediarekin ezkutatu behar dira.

Tamaina handiko eta kolore ezberdineko siloek irudimen nahasia eragiten dute. Modelo bakarreko eta kolore bateko siloa egitea gomendatzen da, ustiategiak duen kolorea jarraituz. Instalakuntza handietan, silo asko eraiki behar denean, ustiategi berak dituen antzeko estalpeekin ezkutatu behar dira eta horrela ikusmen inpaktua gutxitzen lortuko da.

Landaredia, paisaien konposaketarako, elementu nagusienetariko da. Zonalde bakoitzak, klima edo ohiturak medio, bere berezitasunak ditu, beste horrenbeste landaketa artifizialak, bai apain baita ekoizpenerako, paisaiari nortasuna emanez. Batak zein besteak nekazal paisaiaren oinarria osatzen dute. Hau dela eta, eraikuntzen paisaia integratzeko inguruko landaredia ezinbesteko elementua da, hauek kalitatezko paisaiak sortzen dituztelako (Ikus argazki 1).

Argazki 1. Landaredia eta eraikuntzaren integrazioa Toscanan
Iturria: Maurizio Pompignoli, 2004.

Eraikuntza berriak planifikatzerakoan landaretzaren presentzia ere planteatu behar da. Landaketa berriak inguruan erabiltzen diren espezie berdinekin osatu behar dira eta, ahal bada, ustiategiaren inguruan dagoen landarediaren lerro egiturak jarraituz. Horrela,

eraikuntza hobeto integratuko da eta ziurrenik zeharkako abantailak lortuko ditu (eguzkiaren eta airearen babesa, besteak beste) .

Kanpoko landaredia, izaera urbanoa eta ajardinamenduak, ekidin behar da. Nekazal eraikuntzak bere inguruko paisaian integratzen ari gara eta horretarako inguruko landarediarekin bat egiten badugu hobe. Inguruko landareria ustiategiarekin elkartzea interesgarria izaten da bai basoak, setoak edo antzeko formazioak erabiliz.

Eraikuntzen inguruan landarediaren presentzia integratzen laguntzen du. Are gehiago, ekidin ezineko inpaktu handiak arintzeko landaretza trinkoa erabiltzea da modu onena, baina zuhaitz lerroak alboratu behar dira, izaera artifiziala eragiten bait dute. Zenbait kasutan, elementu linealak direnean, lerro hauek erabilgarriak izan daitezke bide sarrerek, itxiturek eta heziek sortzen duten inpaktua arintzeko eta zaindutako paisaia itxura emateko.

2.- Baserria eta paisaiaren integrazioa: ustiapenaren inguruko paisaiatik eraikuntzetara

Baserria, arkitektura aldetik, funtzio anitzeko eraikina da, bolumen edo azal trinko baten barrenean. Hau izan zitekeen eraikin horren ezaugarri nagusienetakoa, historiaren gora-behera guztien gainetik mantendu izan dena. Azienda, familia, eta belarra (biltegi gisa) elkarren ondoan zeuden eraikuntza bikain horretan.

Euskal Herriko baserriak izugarrizko eraldaketa arkitektonikoa jaso du azken 30 urteetan. Orokorrean, inolako irizpide arkitektonikorik gabe ustiapen berriak baserriaren inguruan hasi ziren eraikitzen. Horrela, inguruetako herrietan ematen zen etxe ez hiritar eredua hasi zen garatzen hemen ere bai.

Bestalde ustiapenak modernizatuz doaz, erabilerak aldatzen dira, ekoizpen sistemak berritzen dira, baserrietako bizi-baldintzak hobetuz doaz, eta honek derrigorrez aldaketak sartzen ditu landa eremuko paisaietan. Guzti hau ezinbestekoa da, paisaia etengabe aldatzen doan zerbait baita, eta ez garai batean ateratako argazki bateko irudi finkoa. Beraz, elementu berri horiek aurretik existitzen den paisaian modu egokian integratzea, paisaiaren funtsezko izaera eta kalitatea mantenduz izan beharko luke erronka.

Baserriaren integrazio paisajistikoaren inguruko lanak aztertzerakoan Paisaia eta AKIk Tolosako eskualderako metodologi eta irizpide zehatzak proposatzen dituzte. Hau dela eta, hauen ildoa bertan jarraitzen dugu. Planteatzen duten ardatza paisaiaren ohiko ikerketan jasotako berdina da, baita aztertzen diren arloak, baina hauen erronka gure inguruko baserriaren berezitasunei egokitzea izan da. Espazialki hiru mailei ematen dioten garrantzia, gure lanean jarraitzen ditugunak. Lehendabizi, ustiapenaren inguruko paisai zabalen integratzeko irizpidei, hau da, urrunetik ikusita ustiapena egoki ikusita izan dadin bete beharreko irizpideak. Bigarrenik, ustiapena osatzen duen eraikin eta instalazio multzoari, gertuagotik begiratuta. Eta azkenik, ustiapeneko eraikinak banan bana aztertuz.

2.1. Ingurunean integratu beharra

Hiru faktore orokorrak aztertzea proposatzen dute Paisaia eta AKIk; ikus arroa, hauskortasuna eta lur sailak ustiapenaren inguruan. Faktore hauen inguruko arazoak ez dira berehala nabarmenduko, analisiaren beste bi mailen baitakoak izango dira. Beraz, maila honetan egiten den azterketak ondoko bi mailetan aztertuko diren faktoreen balorazioa egin ahal izateko balioko du, ustiapenaren testuingurua osatzen duen paisaia zabalaren izaerarekin konparatuz egingo dena.

EAEko Paisaiaren Kartografiaren arabera (eskala 1:25.000), 90. hamarkadan egina, ikus-arroa behaketa puntu desberdinetatik bere edukiera osoa ikus daitekeen zonalde gisa definitzen da. Ikus-arroa paisaiaren azterketa egiteko orduan oinarrizko elementua da. Ikus-arroaren identifikazioa EAEko Paisaiaren Mapa hartuta, ustiapena zein ikus-arrotan kokatzen den jasoko da. Azterketa hori egiteko iturria EAEko Paisaia Berezi eta Aparten Katalogoa da, bertan ikus-arro guztien karakterizazio zehatza jasotzen baita.

Ikus arro bakoitzak bere beresitasunak ditu (landaderia, erliebea, nekazaritzaren garrantzia, nekazaritza motak, gizakiaren presentzia, eraikin motak...). Ezaugarri hauek ongi identifikatzea ezinbestekoa da, paisai integrazio neurriak ezarri behar direnean ingurunearekin bat egin ditzaten eta, horrela, inpaktu larriak ekidin.

Ikus arroaren azterketa gunean kokatzen bagaitu, paisaiaren hauskortasunaren analisia bisualki hauskor handiko guneak identifikatzen eta errespetatzen lagunduko luke. Garrantzitsua da ustiapena paisaian ahalik eta modurik egokienean integratzea. Horretarako ordea, garrantzitsua da ere paisaia horren hauskortasuna nolakoa den jakitea. Hauskortasuna handia den lekuetan kokatzen badugu ustiapen hori, hau da, jende asko bizi edo pasatzen den tokietatik erraz ikusten den toki horietan kokatzen badugu, hauskortasun handia izango duela esan nahi du. Beraz, ezinbestekoa izango da integrazio egoki bat izatea. Horretarako funtsezkoa beharko du izan ustiapena dagoen tokietako pertsona kopuruaren arabera baloratzea irizpide hori (Ikus mapa nº 1).

Hasukortasunaren metodoa aurrera eramateko behaketa puntuak zein diren esatea eta zein lurralde zati ikusten den esatea izango da. Behaketa puntuan ikusten diren zonaldeak hauskortasun handikoak dira, beraz bertan ematen diren aldaketak handiagoak izango dira.

Ustiapenaren testuingurua osatzen duen paisaiaren azken lementua lursailen formak, tamainak eta erabilerak dira. Forma irregular eta borobilduak erregular eta geometrikoak baino zaharragoak izaten dira, lursailen antzinako banaketak islatzen dituzte. Bere azterketa ustiapenaren inguruan 500-750 metroko erradio batean egitea gomendatzen da. Orokorrean, nabarmenagoa izango da paisaian bere inguruko forma eta tamainetatik urruntzen den ustiapen-unitatea.

Paisaia eta AKIk dioten bezala zenbat eta paisaia anitzagoa eta aberatsagoa izan, orduan eta hobe integratuko dira elementu berriak bertan. Horretan lurzoruak zeresan handia du, zeren koloreak eta ehundurak ematen dizkio paisaiari. Urte osoan zehar zenbait lurzoru ez dira kolorez aldatuko, baina beste asko izugarri aldatuko dira, batez ere bere landaretzarengatik. Paisaiaren estruktura dibertsoa denean, erabilera desberdin asko dituelako eta tokia zeharkatzen dituen elementu lineal asko dituelako eraikin eta instalazio berriak errazago ezartzen dira, gutxiago nabarmentzen direlako.



Mapa 1.- Paisaiaren hauskortasuna Andoainen. 2007. Iturria: Paisaia Taldea

2.2. Eraikuntzen multzoa, funtzio anitzeko baserriaren menpe

Paisai eta AKIk dion bezala, baserriaren inguruan eraikitzen diren eraikin laguntzaileek eta eranskinek badute "antolatutako multzoa" izateko eta zerbait borobildua osatzeko gaitasuna. Behar bezala antolaturik izanez gero, etxe-aurrea, sarrera nagusiaren aldea, erraz "duindu" daiteke, eta aldi berean, baserriko funtzioak pittin bat atzeratu, ezkutatu beharrik gabe: atzealde bat egiten lagundu, eta aurrealdea osatzen lagundu.

Funtzioei lehentasun ezberdina ematea egokia da, baita ere elementu zehatzak kontuan hartzea ere eraikin multzoen kokapena ona izan dadin. Horretarako jarraian aipamen batzuk garatzen dira. Nahiz arrazionalak izan, materializatzerako garaian gainkostorik ez dute suposatzen eta gainera emaitzak berehalaxe antzematen dira.

Baserriko bideen zoladura, lehengo zoladura zaharraren gainean sendoago bat botatzea logikoa da. Materialei dagokienez, gaur egun asfaltoz eta batez ere hormigoiaz egiten dira, eta biak egokiak lirateke. Arazoa da, iraupen askoz luzeagokoa dela hormigoia, eta horrenbestez, arreta eta txukuntasun gabe egiten bada, luzaroan mantenduko da gaizki eta baldar. Asfaltoak, denbora aurrera joan ahala, bere kolorea eta artifizialtasuna galtzen du, eta denborak gehiago integrarazten du hormigoiaren aldean. Bide horien ertzen garbitasuna eta zehaztasun geometrikoa puntu garrantzitsuenak dira integrazio helburuan (Ikus argazki 2). Aldeetako lurrak bidearen ertzetan berriz pilatzea oso lagungarria izan daiteke. Bideen zabalera ere arazoa izan daiteke baina irtenbideak egon badaude. Esate baterako, kotxeak elkar gurutzatzeko egiten diren noizbehinkako zabalgune txikiak.

Azgazki 2. Bideen trazaera desegokiak paisai inpaktua areagotzen du Iturria: Egilea

Kokapenaren inguruan ustiapenak osatzen duen multzoa non kokatzen den aztertzea garrantzitsua da, hau da, ustiapena mendi tontor batean kokatzen ote den, bailara baten zokoan ala malda baten erdialdean. Tontor batean kokatzen diren elementuak askoz gehiago nabarmentzen dira paisaian, haien soslaia zeru ertzean marrazten delako. Lautada zabal batean kokatzen diren ustiapenak ez dira gehiegi nabarmentzen, tamaina berdintsuko paisaiaren elementuek bata bestea estaltzen dutelako. Hala ere, Kantauriar isurialdean lautada handirik ez da izaten eta beste kokapenak ohikoagoak dira.

Paisaiaren eskala ere garrantzitsua da. Elementu berriak eskala zabaleko paisaietan hobeto egokituko dira, eskala txikikoan elementu horiek handiak emango dutelako, eta aldiz eskala handikoan berriz, erlatiboki tamaina txikiagoa dutelako objektuek. Beraz Paisaiak eta AKIren proposamenak jarraituz aipatu behar da eskala oso garrantzitsua dela paisaian.

Topografia dagokionez, erliebea ia batere aldatu gabe eraikitzen ziren baserriak. Egun, aldiz, malda handienean ere sail lau bat sortzea posible da bertan eraikin bat jarri ahal izateko. Hori bai, azpitik harri-lubeta bat eraikitzen da, eta gainetik horma handi bat. Askotan, harri-lubeta eta horma eraikinak baino askoz ere handiagoak dira, eta honek inpaktu negatiboa sortzen du paisaian. Horregatik, zenbat eta erliebea gehiago errespetatu, orduan eta hobekiago integratuko da ustiapena paisaian. Helburu nagusiena, interbentzioaren aurreko topografiaren osotasuna ahalik eta garbien mantentzea litzateke, eta aldi berean, harri-lubetak eta ezpondak ahalik eta txikienak egitea (egingo ez badira hobe, eta hautatzekotan, hobe ezponda harri-lubeta baino) litzateke irizpide nagusia.

Multzoen izaerari dagokionez, garrantzitsua da eraikinen tamainak kontuan hartzea. Baserriek eraikin laguntzaileak izaten dituzte. Hauek baserria bera baino handiagoak izaten dira batzuetan, beraz garrantzitsua da beraien kokapena zehaztea; horretarako badira

sistema batzuk. Baserriari eraikin laguntzailea jarri ezkero baserria edo etxe zahar nagusia desagerraraziko luke. Aldiz, baserriari erantsiko ez balitzaio, baserriaren edo multzoaren izaera ongi ikusi ahalko litzateke.

Etxe nagusiaren hierarkia mantendu nahi bada, aurreko atalean aipatutako puntua garrantzitsuena bada ere, eraikin desberdinen teilatuen arteko erlazioa ere aintzat hartu beharko litzateke: baserriaren teilatuaren bi isurialdeek izugarrizko nortasuna (simetrikoa, trinkoa) ematen diote eraikin nagusiari beti, multzoko beste erakinetan, bi isurialdekoa eginez gero, hauek ere "nortasun" eta presentzia handiagoak hasiko lirateke edukitzen, eta multzoan berriz, hierarkia ez litzateke batere ongi antzemango. Beraz, eranskinak zein eraikin laguntzaileak, isurialde bakarrekoak egingo balira, askoz ere xumeagoak geldituko lirateke baserriaren parean, eta era horretan hierarkia mantenduko lukete (Ikus grafiko 2).



34. irudia. Baserri zaharraren eta nabe berriaren arteko erlazioak. 1/ baserri zaharrari itsatsitako nabea. 2/ baserri zaharretik aldentzen den nabea, isurialde bikoa. 3/ baserri zaharretik aldentzen den nabea, isurialde bakarrekoa. 4/ baserri zaharretik aldentzen den nabea, kontrako noranzkoan kokatua. 4. aukera litzateke egokiena, aurrealdean edota atzealdean espazio bat sortzen lagunduko luke eta. Hala ere, 1-2-3 aukerak ere egokitzat jotzen dira. 2. aukera 1.a baino egokiagotzat, eta 3. aukera 2.a baino egokiagotzat. Iturria: egileek sortua.

Grafikoa 2. Baserri zaharraren eta nabe berriaren arteko erlazioak. Iturria: Paisaia eta 4ki taldea

Antolaketari dagokionez elementu bakoitzaren kokapenak aurretik finkatutako plan bati erantzuten badio, antolaketa hori begi bistakoa izango da. Aldiz, antolaketa modua inprobisatua bada, ikusiko da ez dela hain egoki eta hain begi bistakoa. Egokia da elementu berrien kokapenean, aldez aurretik zeuden hainbat eraikin, izan txabola, estalpe, etab. eraistea.

Ustiategietan oso ohikoa da zabor asko pilatzea, baina badira beste hainbat arazo: erakuntzan erabilitako materialen soberakinak, edozer gauzetarako beharrezko

diren tresnak, materialak; edo eta biltegian sartzen ez diren lanabesak. Ustiapeneko eraikin eta instalazioen inguruek garrantzi handia dute txukuntasuna islatzeko orduan. Zabor eta hondakinen pilaketa oso kaltegarria izan daiteke ingurumenarentzat.

Ustiapeneko eraikinen artean eta hauen inguruan, ezinbestekoa da zoladura gogorra egotea. Baina, Paisaiak eta AKIk dion bezala, derrigorrezkoa ez den toki batzuetan zoladura iragazkaitza jartzen da, eta behar-beharrezkoa dena baino azalera handiagoan zoladura gogorra jartzen da. Honek paisaiarekiko integrazioan arazoak sortzen ditu, inguruari itxura hiritar eta artifizializatua emanez, eta inguruko lurrekiko ehundura eta kolore zeharo desberdinak dituen azalera handi bat sortuz. Gainera, azalera handi bat zolatzeko lanen aurretik lurrak lautu behar direnez, tokiko topografia eraldatu egiten da. Beraz, beharrezkoa den tokietan soilik erabiliko da zoladura gogorra edota iragazkaitza, eta honen ertzen akaberak bikainak izatea oso garrantzitsua da.

Landarediaren inguruan aipatu, baserri ondoetan zuhaitz propioak egon izan direla normalean. Hauek nortasuna eman izan diote inguruari eta baserriari. Zuhaitzak kasu batzuetan oso funtzionala dira, gereziondoa kasu; beste batzuetan menditarragoak, haritza kasu; eta batzuetan exotikoagoak ere, palmera kasu. Zuhaitz horiek ematen duten nortasunari eustea oso komenigarritzat jotzen da (ikus argazki 3 eta 4).

Argazki 3 eta 4. Baserria eta bere eraikuntzak landarediaz inguraturik. Iturria: Egilea.

Ustiapena osatzen duten eraikin eta instalazioen multzoan eta honen inguruan landaredia egoteak (zuhaitzak gehienbat), asko laguntzen du elementu berriak paisaian integratzeko orduan Paisaia eta AKIk dioten bezala, hasieran aipatutako paisaiaren aberastasuna handitzen dutelako. Kasuren batean, landaredia erabil daiteke instalazio edota eraikinen bat begien bistatik ezkutatzeko. Baliabide hau erabilgarria izan daiteke, beti ere inguruko paisaiarekin bat badator.

2.3. Eraikinak banan bana

Orain arte ustiategiaren kokapena paisai zabalean aztertu dugu. Puntu honetan, ordea, ustiapenaren eraikinen paisai integrazioa egokirako zenbait azalpenak jasoko ditugu. Ustiapeneko eraikinen artean ondokoak desberdindu dute egileek: eraikin nagusia (gehienetan jatorrizko baserria dena), eraikin nagusiari itsatsitako eranskinak, eta eraikin laguntzaileak (ukuilu, biltegi, eta abarrerako erabiltzen direnak, eta gehienetan eraikin nagusia baino berriagoak direnak). Era guztietako akaberak izan dituzte baserriek harrizko paretaren gainetik. XIX. mendean, berriz, etxe asko zuritu ziren kanpotik, eta orduz geroztik Euskal Herriko biztanleen “irudimenarentzat” hau eredu finko bat bihurtu da.

Paisaiaren eta AKIren taldearen aholkuaz jarraituz, baserriaz, hau da, multzoaren etxe nagusiaz, ez litzateke aholku askorik eman behar, bai ordea eraikin laguntzaileaz edota eranskinaz. Oso zalantzazkotzat jotzen da eraikin laguntzaileak zuritu behar izatea. Zuritzeko beharrik ez duten materialekin eraikitzen ez bada ez du zentzu handirik eta etxe nagusia zuritua badago eta gainontzekoak ez, hierarkia arkitektoniko-izaerakoa eta irudiarena hobe nabarmentzen da

Teilak erabiltzea eraikin laguntzailetan ez da egoki ikusten, ez baitute beraien erabilera behar. Hasteko, tradizioz egurrezko estalkiari dagozkielako eta beste alde, Irudimen aldetik astunak direlako eta ohiko landa itxuraren eragileak. Ustiategiaren nabea hormigoizko edota burdinazko egiturazkoa bada, ez lituzke teilak oso ongi onartuko, beste eraikuntza mundo batekoak baitira. Jakina da hormigoizko egitura batean ere erabiltzen direla teilak, baina ustiategi baterako egokiagotzat jotzen dute material arinagoak eta teknologikoagoak (zaflak…). Teilatuen artean honek hierarkia bat sortzen laguntzen du. Sinpletasuna eta funtzionalitatea da bilatzen ari dena, hirigintza eta etxebizitza izaeraz aldenduz. Nekazal jarduera eta ganaduaren bizitokia eraikin hauen helmuga dira, eta ez pertsonak.

Eraikinen arteko eskala arazoak ekidin behar dira. Eraikin laguntzaileak handiak izaten direla diote baserriarekin alderatzen baditugu, eta hori nolabait baretzeko dauden arau batzuk jorratu dira honez gero. Baserriarekin lehian ez hasteko (hierarkia mantentzearren), eraikin laguntzaileak gutxieneko tarte bat izan behar du jatorrizko baserriarekiko (edo ustiapeneko eraikin nagusiarekiko), teilatuaren gailurraren forma eta posizioa zaindu behar ditu... azken batean, saiatu beharko litzateke nabea arkitektonikoki ahalik eta neutroen izaten (teilen gabeziak, kolore neutralak...laguntzen dute horretan), beste hitz batean: abstraktua izaten. Abstrakzioa medio leiho edo zuloak ahalik eta neutralenak izatea komeni da, etxe izaeratik urrunduz. Konposizio egokia mantendu behar da baina hain ohikoak diren baserriko leihoetan ematen diren apaingarriek ez dute lekurik ekoizpenerako erabili behar den leku batean. Jarraian jasotzen dugun argazkietan nabea eta baserriaren arteko banaketa egoki baten adibidea ikus daiteke, tarteak, zoladurak eta material egokiak erabiliz bai eraikuntza batean zein bestean (Ikus argazki 5).

Argazki 5. Baserria eta ustiategiaren arteko integrazio egokia. Iturria: egilea

3. Neurri zehatzak eta prebentiboak proposatu beharra

Aurreko atalean irizpide teorikoak plazaratu dira. Jarraian gomendiak aurkeztuko dute Paisaiak eta AKIk. Hauek bi ataletan banatuko dira, erakundeek erabili behar duten eskakizunaren mailaren arabera. Oinarrizko eskakizunen artean zoladura, txukuntasuna, funtzionalitatea eta landaredia zaintzeko beharra jasotzen da. Baldintza hauek betetzeak kostu txikia edo kosturik ez lituzke izango. Beraz, konponketa erraza duten gaiei buruzkoak lirateke eta administrazioak derrigorrezkoak ezarri beharko lituzkeenak. Bigarrenik, inbertsio handia suposatzen dutenak eta etorkizunari begira baserrian edo beste ustiapen batzuetan arazo horiek ekiditeko neurriak proposatzea egokiagoa aurreikusten da. Beraz, neurri hauek prebentiboak dira, eta ez egun arazo mota horiek agertzen dituzten ustiapenentzat neurri zuzentzaileak.

Neurriak ezartzeko orduan lagungarri izan daiteke ustiapen bakoitzaren paisaiarekiko hauskortasuna eta ikusgarritasunaren balorazioa kontuan izatea. Honela, paisaiarekiko hauskortasun edota ikusgarritasun handia duten ustiapenen kasuetan erabaki daiteke baldintzen betetze-mailak zorrotzagoa izatea. Hau da, diskriminazio positiboa egin ahal izango da gehien ikusten diren ustiapenetan paisaiarekiko integrazioa hobetzeko ekimenak burutzeko.

Proposatzen diren baldintza zehatzen artean ustiapenak duen paisaiarekiko integrazioa baloratzea kontuan hartu behar da, bi egoerekiko, proposatutako aldaketen aurreko egoerarekiko, eta proposatutakoa gauzatu ondorengo egoerarekiko.

Argazkia 6. Txabolismoa agerian ustiategi askotan.

Iturria: Xavier Argimon / Miquel Àngel Arrufat, 2006

Hauetaz gain, honako hauek eskatzea aurreikusten da: ustiapenean jada existitzen diren harri-lubetetan belarra edo landare igokariak landatzea, hauen ikusgarritasuna baretzeko; ustiapenaren inguruak traste eta hondakinez garbi mantentzea, desitxurosoak diren eranskin edota eraikin laguntzaile txikiak (txabolak eta antzekoak), konpondu edo botatzea; eraikin laguntzaileak egitura eta material arinez eraikitzea, eta funtzioarekin bat datorren itxura ematea, ustiapeneko bideak zabaldu behar badira, alboetan harresia edota heskaia dutenen kasuan, teknikoki bideragarria bada behintzat albo batekoak mantentzea; ustiapeneko lurretan existitzen diren lursailen mugetan eta bidezidorretan harresi eta heskaiak kontserbatzea; eraikinen inguruak material iragazkaitzaz zolatzean landaredia txertatzea; heskai eta zuhaitz isolatuak landatzeko orduan, bertako espezieak erabiltzea (Ikus argazki 6).

Ikusi daitekenez, proposaturiko neurriek ez dute ahalegin ekonomiko handirik eskatzen. Kontuan hartzeko elementuak dira, baserritarra eta administrazioaren mentalitate aldaketa eta heziketa eskatzen dutenak. Pauso txiki hauekin paisaian antzematen diren inpaktu handienetariko batzuk ekidingo lirateke ikertzaileen arabera.

Bestalde, inbertsio handia suposatzen dutenak eta etorkizunari begira baserrian edo beste ustiapen batzuetan arazo horiek ekiditeko neurriak proposatzea egokiagoa aurreikusten da. Beraz, neurri hauek prebentiboak dira, eta ez egun arazo mota horiek agertzen dituzten ustiapenentzat neurri zuzentzaileak. Gehienetan, arazo hauek topografian kokapen desegokiarekin, eraikinen arteko multzo-izaera desegokiarekin, edota eraikinen arteko hierarkia desegokiarekin loturik daude. Honelako arazoak konpontzeko, ezinbestekoa

litzateke eraikin bat edo gehiago bota eta berreraikitzea, eta hau ez da bideragarria. Beraz, arazo hauetariko gehienak eraikinekin erlazioa dute.

Mota horretako arazoei aurre egiteko etorkizunari begira neurri prebentiboak ezartzea proposatzen dute. Honek ez ditu konponduko egun dauden integrazio desegokiak, baina ustiapenek haien eraikin laguntzaileak eta eranskinak hainbat urtetan behin berritzen dituztenez, poliki-poliki zuzentzen joango dira arazo hauek. Tolosaldean ustiategien eraikuntzen paisai inpaktua arintzeko sortutako taldeak honako neurri prebentiboak proposatzen ditu:

-Ustiapen batean paisaiarekiko integrazioan eragina izango duten lanak burutu aurretik, ustiapenak duen paisaiarekiko integrazioa baloratuko da. Balorazio hau proposatutako aldaketen aurreko egoerarekiko eta proposatutakoa gauzatu ondorengo egoerarekiko.

-Paisaiaren aberastasuna kontserbatuko da, hau da, elementu estrukturalak (adibidez, heskaiak, harresiak, zuhaitz-lerroak, bidezidorrak), ahal den neurrian lurren erabilerak dibertsifikatuko dira, ondare kultural eta naturala…

-Eraikin berriak egiteko orduan, aurretik dagoen topografia ahalik eta gehien errespetatuko da. Maldan eraikitzean, eraikina honi egokitzea hobetsiko da, topografia aldatu gabe. Topografia eraldatzea ezinbestekoa denean, posible den kasuetan harri-lubetak ekidingo dira, horien ordez ezpondak eginez. Zuhaixkak landatzea komeniko litzateke, beti ere lugorriaren presentzia baretu bidean.

-Eranskin eta eraikin laguntzaileak modu planifikatuan eraikiko dira, eta ahalik eta kopuru txikienean. Eraikin nagusiaren aurrealdeari dagokion duintasuna emango zaio, are gehiago ezaugarri arkitektoniko on bat badu (arkua, harrizko aldeak,...). Ustiapeneko eraikin berriak aurretik daudenekiko tarte egokietara eraikiko dira. Ustiapeneko eraikinen multzo-izaera eta hierarkia egokia mantentzea.

-Zoladura eta bideen inguruan ustiapeneko eraikinen inguruan zoladura zainduko da, ustiapeneko eraikinen multzoa paisaian modu egokian integratzeko. Ustiapeneko bideetan zoladura jarri edo berritzeko orduan ertzen akaberak zainduko dira, bereziki hormigoizkoak badira. Landa eremuko auzoetan, gutxi erabiltzen diren errepideetan bidea zabaltzeko beharra suertatzen denean, ez da honen luzera osoan zabalduko, tarte jakinetan zabalguneak jarriz baizik. Errepidetik ustiapenera doan landa-bidea akabera finekoa izango da, eta luzera egokikoa.

-Elemento gehigarrien inguruan ustiapeneko eraikinen inguruko bestelako elementu gehigarriei dagokienez (langak, hesiak, itxiturak, argiak, eserlekuak, eta abar), soilik beharrezkoak direnak jarriko dira, akabera finekoak, abstrakziora hurbiltzen direnak, rustifikazio faltsuak saihestuz. Konifera exotikoen espezie bakarra erabiltzen dituzten heskaiak baztertuko dira, bertako espezie anitzetakoak hobetsiz.

- Eraikinetan eta bestelako eraikuntzetan, estiloari dagokionez gaurkotasuna eta abstrakzioa hobetsiko da. Eraikin laguntzaileak egitura eta material arinez eraikitzea, eta funtzioarekin bat datorren itxura ematea. Eranskinak eraikitzean konposizioa zaindukoa da bereziki (ikus argazkia 7).

Argazki 7. Estilo bereziko ukuilua eraikitzen Oiartzunen. turria: egilea

Ikusten denez, baserriari eta orotar ustiategi guztiei egindako proposamenak azaldu dira. Hauek inbertsio gehien suposatzen dutenak dira eta, berez, zailtasun gehien dutenak baina prebentzio eta planifikazioaren bitartez proiektu berri batean integratu daitezkeenak.

4.- Baserriaren garrantzia ustiategiaren paisai integrazioan, ondorio gisa.

Nekazal baserrien kopurua etengabe ari da behera egiten eta, hamarkadako, ustiategi erenek jarduera usten dute. Galera honen ondorioak paisaian islatzen ari dira, extensifikazioa eta utzikeria nagusitzen zenbait kasuetan. Hala era, erabilera nagusienak, basoa eta belardia, itxuraz berdin mantentzen dira eta begirale adituek bakarrik antzematen dituzte aldaketak.

Gizarteak, ordea, nekazal eremutan hiri erabileraren presentzia gero eta gehiago antzematen du. Azpiegiturak, urbanizazioak, zerbitzuak eta etxe edo txaletak etengabe eraiki dira, jatorrizko paisaiari inolako jaramonik egin gabe. Azken bi hamarkadetan paisaiaren kalitatearen galera izugarria izaten ari da.

Nekazal jarduerarekin jarraitzen duten ustiategi gehienek azken hamarkadetan hobekuntzak burutu dituzte, ukuilua baserritik kanpoko eraikuntza batera ateraz adibide gehienetan. Kasu hauetan ere, paisai irizpideak ez dira, salbuespen salbu, kontuan hartu. Inpaktu gehien sortu duena, hala ere, ustiategiaz mozorrotuz, eraiki diren etxebizitzak (bi isuriko teilatuak teilekin hornituaz, hormigoizko hormak, diseinuzko leihoak, forjazko itxiturak …) dira. Hauek jatorrizko baserri eraikiak urbanizazio batean bihurtu dute. Hainbeste

eraiki da baserri inguruan Gipuzkoa edo Bizkaiko lurraldetan zaila egiten da egun, inpaktu nabarmenik jasan ez duen nekazal eremurik aurkitzea.

Jasandako paisai erasoa salaketa handirik jaso gabe burutu da eta paisaia hobetzeko neurriak proposatu dituzten ikertzaile eta entitateek are gutxiago dira. Gure kasuan ahalegin gehienak Landa Garapen Elkarteen bitartez etorri dira eta proposamenak ikertzaile talde baten bitartez, Paisaia taldea. Erakunde publikoen interesa urria izan da, gehienez jota neurri bat edo beste proposatuz Plan Orokorrak burutzerakoan.

Bestalde, baserriaren paisai integrazioaren inguruan egindako proposamenak beste eremu eta eskualdetan egindakoen antzekoak dira, metodologia eta aztertutako elementuak errepikatuz (txukuntasuna, landareen erabilera, zoladura, hesiak, itxiturak …). Aholkuak ere, batean eta bestean, errepikatzen dira.

Etxebizitza eta ustiategia batzen duen jatorrizko eraikuntzan, hau da, baserria, beste ereduarekiko ezberdintasun nabariena markatzen du. Ikertzaileek eraikin nagusiaren garrantzia paisaian islatzeko beharra gomendatzen dute. Altuera ezberdineko eraikinak, isuri bateko teilatuaren aldeko apustua zenbait eraikinetan, tarteak finkatu eraikin batzuk eta besteen artean … baserriaren nagusitasuna adierazteko eta eraikinen unitatea hobeto integratzeko egindako proposamenak dira.

Horretaz gain, nahiz eta beste adibidetan antzeko aipamenak azaldu, Euskal eremuaren kasuan egindako proposamenaren beste ardatza funtzionalitatea da. Ustiategien eraikinak material xumeekin egin behar dira, abstrakzioa eta gaurkotasuna lehenetsiz, ohiko estiloak imitatzen dutenen aurrean. Ustiategiek behar ez dituen inbertsioak ez dira burutu behar, nekazal jarduerak bere funtzionamendurako behar ez badu. Proposamen hauen atzetik, beste arrazoien artean, presio urbanistikoa dago. Baserria eta nekazal eremua bizi kalitatearen adierazlea da Euskal gizartearentzat. Asko dira, nekazal jardueraren aitzakia, nekazal eremuak etengabe urbanizatzen ari direnak.

5.- Bibliografia

ABATE, Anna; ZARRILLO, Vincenzo; OSTUNI, Cinzia; VACCARO, Mariano; BIANCHINI, Adriana; PALESE, Arcangelo. Linee guida per la gestione paesaggistica del territorio. Le trasformazioni dei paesaggi agrari in Basilicata. Indirizzi per il controllo e la gestione, Regione Basilicata, Potenza, 2007, inédito.

ALDOMÀ, Ignasi et al. Els sistemes agraris i l'ordenació del territori a Catalunya, Departament de Política Territorial i Obres Públiques, Lleida, 2006.

ARGIMON, Xavier; ARRUFAT, Miquel Àngel. Criteris i mesures per a la integració paisatgística de les activitats agràries. Part 1: sector ramader, Barcelona, 2006, inédito.

ARGIMON, Xavier; ARRUFAT, Miquel Àngel. Criteris i mesures per a la integració paisatgística de les activitats agràries. Part 2: sector agrícola, Barcelona, 2007, inédito.

ARGIMON, Xavier; ARRUFAT, Miquel Àngel. La integración paisajística de las actividades agrarias en Cataluña criterios y medidas. PARJAP: Boletín de la Asociación Española de Parques y Jardines, págs. 28-36. 2008

ASKASIBAR, Miren. Política y normativa del paisaje en Europa, en Lurr@lde inves.esp, nº 21, 1998, p.155-193.

BARDON, Éric (dir.). Qualité architecturale des bâtiments agricoles, Ministère de l'Agriculture, de l'Alimentation, de la Pêche et des Affaires Rurales et Ministère de la Culture et de la Communication, 2003.

CAMICIA, Sandra. Guida alle buone pratiche per il paesaggio rurale, Insediamenti, Regione Umbria, 2007, inédito.

CARAVAGGI, L.; MENICHINI, S. et al. Paesaggi che cambiano – Linee guida per la progettazione integrata del paesaggio della Basilicata, Officina Edizioni, Roma, 2006.

CERVI, Giuliano. Impatto ambientale delle infrastrutture tecnologiche nel territorio montano: criteri di mitigazione perceptiva, Giunta regionale, Bologna, 2005.

CONSEIL D'ARCHITECTURE, D'URBANISME ET DE L'ENVIRONNEMENT DE LOIRE-ATLANTIQUE. Bâtiments agricoles et paysages : du projet agricole au projet architectural et de paysage en Loire-Atlantique, 2003.

COSTA, Juan Carlos (coord.). Manual para la diversificación del paisaje agrario, Junta de Andalucía, Sevilla, 2003.

DEPARTAMENT DE POLÍTICA TERRITORIAL I OBRES PÚBLIQUES. Fitxes de bones pràctiques en el paisatge vitivinícola del Penedès, Barcelona, 2006.

DONNADIEU, Pierre. "L'agriculture, peut-elle devenir paysagiste?", Carnets du Paysage, École Nationale Supérieure du Paysage / Actes Sud, Arles, 1998, p.100-116.

MÉRIDA,M, LOBÓN,R. "La integración paisajística y sus fundamentos. Metodología de aplicación para construcciones dispersas en el espacio rural". Boletín de la AGE, nº 56, pp.263-294. 2011

PARC NATUREL RÉGIONAL DU VERDON. Guide pour l'insertion paysagère des bâtiments agricoles, Aix en Provence, 2005.

PAISAIA, AKI ARKITEKTURA. Landa eremu estrategikoetan nekazaritza ustiapenek duten integrazio paisajistikoaren egokitzapena. Tolosaldeako azterketa pilotoa. 2010.

SARLET, Danielle (dir.). Conseils pour l'intégration paysagère des bâtiments agricoles, Ministère de la Région wallonne, Jambes, 2001.